



1. ERANSKINA

"2016-2017 ikasturtean euren seme-alabak udal-haurreskolan matrikulatzen dituzten familientzako laguntzen deialdia.

Helburua eta onuradunak

Laguntzen deialdi honen bitartez, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ezarritakoaren osagarri den sistema ipiniko da, 2016-2017ko ikasturtean seme-alabak Udal Haurreskolan matrikulatu dituzten familientzat.

Aurrekontu-kreditua

Behar besteko aurrekontu-zuzkidura dago, ekitaldi honetan banatu beharreko laguntzen kostuari aurre egiteko, 04 3201 48002 kontu-sailean atxikitako zenbatekoa ez delako HIRU MILA HIRUREHUN ETA HIRUROGEI EUROTİK gorakoa izango (3.360 €). Era berean, aurrekontuen arloko organo eskudunak konpromisoa hartzen du, 2017ko ekitaldiko aurrekontuetan kasuan kasuko kredituak gordetzeko. Era horretara, 2016-2017ko ikasturteko urtarrietik uztaile arteko gainerako diru-laguntzen kostuari aurre egin ahal izango zaio. Kostu hori BOST MILA ZORTZIEHUN ETA LAUROGEI EUROKOA izango da (5.880 €) gehienez ere.

Betekizunak eta eskabidea

Betekizunak:

Hurrek Udal Haurreskolan matrikulatuta egon beharko dute laguntza honetako onuradunak diren bitartean.

Familiek diru-laguntza eskatzeko orria bete beharko dute, bestela, deialdi honetako laguntzei uko egiten dietela ulertuko da.

Eskabidea:

Eskabide-orria.

Familia-liburuaren fotokopia.

Bankuko kontu-zenbakia.

Eskabidea aurkezteko lekua

Eskabideak Udal Erregistroan aurkeztuko dira (Zaharra 2) 9:30etik 13:30era, astelehenetik ostiralera, datorren 2016ko azaroaren 15etik.

Laguntzen ezaugarriak

Udal-laguntza hau ezarriko da, Urduñako Haur Hezkuntzako lehen zikloko plazen prezioak berdintzeko.

Udal-laguntzak emango dira, eskatutako zerbitzuaren prezioa gutxitu ahal izateko. Udal-diru-laguntza irailtik uztaile egongo da indarrean.



Laguntzen bateragarritasuna

Dena dela, udal-laguntza Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak emandakoarekin izango da bateragarria, baita beste edozein diru-laguntza publiko edo pribaturekin ere, betiere laguntzen batura ezarritako prezio publikoa baino handiagoa ez bada.

Diru-laguntzaren zenbatekoa

Hileko laguntza 40 eurokoa izango da udal-haurreskolan matrikulatutako neska edo mutileko.

Eskabidean bertan, akatsen bat badago edo derrigorrezko agiri guztiak aurkeztu ez badira, administrazioak eskatu ondoren zuzendu beharko da eskabidea, jakinarazpenetik hasi eta hogeit hamar eguneko epean.

Esleitzeko prozedura

Laguntza honen ezaugarriak kontuan hartuta, esleipena onartuta egongo da, eskabidea egitean eta deialdi honetan zehaztutako betekizunak betetzean.

Diru-laguntzen ordainketa

Ordainketa bi epetan egingo da, honako hilabete-tarte hauetan:

1. ordainketa, 2016ko irailetik abendura bitartean matrikulaturik egondakoei dagokiena, 2017ko urtarrilean egingo da.
2. ordainketa, 2017ko urtarriletik uztailean bitartean matrikulaturik egondakoei, 2017ko uztailean egingo da.

Diru-laguntzaren aldaketa

Diru-laguntza esleitzean kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira, laguntzaren esleipena bera ere aldatu ahal izango da.

Betearazpenik eza eta zehapenak

Urduñako Udaleko Udal Diru-laguntzak Esleitzeko Oinarri Orokorrak arautzen dituen Ordenantzako 18. artikuluan xedatutakoa ezarri beharko da.

Ezarri beharreko legeria

Deialdi honetan aurreikusita ez dagoen guztian, honako hauxe ezarriko da: Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; Urduñako Udaleko Udal Diru-laguntzak Esleitzeko Oinarri Orokorrak arautzen dituen Ordenantza; eta ezartzekoa den administrazio-arloko zein toki-araubideko kasuan kasuko beste edozein arau."

Urduñan, 2016ko azaroaren 10ean